

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan gure proiektua aurrera eramateko egin beharko ditugun funtsezko jarduerak definituko ditugu. Hauek garrantzitsuenetik garrantzi gutxiago dutenera ordenatuko ditugu ez baitute denek inportantzia bera, eta beraz, gure proiektuan eragin bera ere ez.

Hasteko, proiektuak aurrera egin dezan taldekideak garenon artean konfiantza gunea sortzea inoiz baino garrantzitsuagoa da; izan ere, gure artean gai honi buruz hitz egiteko segurtasunik ez badugu, ezingo dugu proiektua lasai aurkeztu, ezta gurasoei erosotasuna transmititu ere. Orobat, proiektu osoan zehar konfiantza gai nagusia da, hain zuzen ere, badakigu gai hauek oso sentikorrek direla, eta kontu handiarekin tratatu behar direla, inor ez gaizki sentiarazteko. Horrekin batera, gurasoei segurtasun eta konfidantza transmititzeaz gain, beraien seme-alabekin erlazio hobea izan dezaten aholkuak emango dizkiegu. Eta horrela guranako gertutasun bat sentituko dute, modu honetan, gezurrak ekingo ditugu eta etxean dituzten arazoak azalduko dizkigute.



Gure saioetako azken zatia azpimarratu nahi dugu, honek eragin handia izango baitu gurasoen ondorengo pentsatzeko eran, hau da, gure saioak amaitzean, bukaeran egin dugun hausnarketak etxean errepikatzea nahi dugu, modu honetara, haien inguruko harremana hobetzea lortuko dugu. Balorezko proposamenean adierazi dugun bezala, saio osoari buruz hausnarketa sakon bat egingo dugu. Bertan, hauek nola sentitu diren, oroitzapenik izan duten, ariketei buruz zer iritzi duten eta ea haien esperientziarik partekatu nahi

dizkiguten galdetuko diegu. Lasai sentitzeaz gain, baliteke eztarrian duten korapilo hori askatzen laguntzea; hori baita gure helburuetako bat.

Bestalde, proiektuaren antolakuntzak ere badu bere garrantzia. Zerbitzu hau ondo prestatuta egon behar da, saioetan zehar izan ditzakegun arazo guztiak aurreikusita izan behar ditugu, eta gainera klase hauek ez badaude alde aurretik pentsatuta, hau da, ez badakigu ariketak nola egin eta saioen simulakro bat egiten ez badugu, ez gara prestatuta joango eta gurasoei gure lan honek merezi ez duela transmitituko diegu. Hau ekiditen ez badugu, diru sarrerak galtzeaz gain, berezoak galtzeko arriskua ere hor dago. Beraz, porrot egin nahi ez dugunez, antolakuntzari bere ardura eman behar zaio.

Gure zerbitzua ahalik eta pertsona gehienei iritsi behar zaie, arrakasta eduki dezan. Horretarako, publizitateaz baliatuko gara. Garrantzitsua izango da gure proiektuaren izena eta ideia zabaltzea, gure zerbitzua ezagutzera eramateko. Sare sozialak erabiliko ditugu modu estrategiko batean erakargarria izateko, hala nola, koloreekin jokatuz, Slogan bat erabiliz, lagunen artean zabalduz, gure eskolako irakasleei komentatuz, ... Hala ere, modu eraginkorrerak komunikazio bidezko publizitatea izango dela deritzogu; gurasoekin seme-alabekin izaten duten harremana sustatu nahi badugu era honetara lortuko dugu.

Bostgarren postuan, ariketa bakoitzaren ondorengo azalpenak ezarri ditugu. Uste dugu, azalpen hauek ez direla gainerako arloak bezain garrantzitsuak, saioetara sartu aurretik badakitelako zein gairi buruz hitz egingo dugun, eta honekin erlazionatutako ariketak zeintzuk izango direnaren ideia bat izan dezaketelako. Aurretik aipatu dugun moduan, ariketa bakoitzaren ondoren azalpen bat emango dugu, ariketa hau zergatik egin dugun eta honen helburua zein zen adieraziko diegu. Ondorio bat atera ondoren, ariketen zentzua ulertuko dute.

Amaitzeko, komunikazio bideak ditugu. Bai bezero eta baita erakundeekin izango dugun komunikazio mota alegia. Gurekin kontaktuan jartzeko nahikoa baliabide izango dituztela kontuan izateaz gain, haiekin izango dugun komunikazioaz gu arduratuko gara, eta beraz gure bezeroek ez dute inongo kezkarik izan behar.

